

390 eredia aurkeztu behar dutenak

- 390 eredia aitortzea araubide orokorrean soilik aurkeztu behar duten subjektu pasiboek aurkeztu behar dute azken autolikidazioa egiteko. Bakoitzak autolikidazio bat bakarrik aurkeztu behar du. Laugarren hiruhilekoagatik eta abenduagatik ez da aurkeztu behar beste aitortpenik; nahikoa da eredu hau betetzea. Hala ere, esportatzaileen erregistroan ageri diren subjektu pasiboek abenduko itzulketa eskatu ahal izango dute 331 ereduaren bitartez.
- Erakunde taldeen araubide bereziari heldutako subjektu pasiboek 390 eredia aurkeztu behar dute urteko laburpen-aitortpena egiteko; abenduko autolikidazioak 322 eta 353 ereduetan aurkeztu behar dituzte.

Noiz aurkeztu behar den 390 eredia

Urtarrilaren 1etik 31ra bitartean.

Non aurkeztu behar den 390 eredia

- Autolikidazioaren azken emaitza:

Dirua sartu beharra bada, lau aukera daude:

- Telematikoki.
- Bizkaiko Foru Ogasunaren Kutxan, esku-dirutan edo txekearen bidez.
- Erakunde laguntzaile batean (banketxea edo aurrezki kutxa).
- Sarrera geroratzeko eskatzen bada, eskabidearekin batera.

Konpentsatu edo itzuli beharra edo zero bada, bi aukera daude:

- Telematikoki.
- Bizkaiko Foru Ogasunean, posta ziurtatuz bidalita zein norberak eramanda, eta haren bulego deszentralizatuetan.

390 eredia nahitaez aurkeztu behar dute telematikoki:

- Pertsona juridikoek, erakundeek eta Sozietateen gaineko Zergaren zergadun guztiek, beren jardunean besteren konturako zenbat langile erabiltzen dituzten gorabehera.
- Hirugarrenen izenean Bizkaibai sistemaren bidez telematikoki jarduteko baimena dutela, zerga aholkulari gisa aritzen diren profesionalak.
- Besteren konturako hamar enplegatu edo gehiago dituzten pertsona fisikoek, ondasun erkidegoek eta sozietate zibilek.
- Erakunde taldeen araubide bereziari heldutako zerga honen subjektu pasiboek.

1. orrialdea

Autolikidazio mota

Autolikidazioa osagarria bada, X batez markatu behar da [10](#). laukia.

Honen ondoretarako, autolikidazio osagarriak dira aurretik aurkeztutako bat osatzeko edo aldatzeko aurkezten direnak. Autolikidazio hauek sartu beharreko diru kopurua aurreko autolikidaziokoa baino gehiago edo itzuli edo konpentsatu beharrekoa baino gutxiago denean aurkeztu ahal dira.

Subjektu pasiboa

Atal honetako datu guztiak adierazi behar dira.

Jarduera nagusia

Jarduera nagusizat ekitaldian sarrera gehien sortu dituen hartu behar da.

JEZen epigrafea: jarduera nagusiak Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan duen epigrafea adierazi behar da, badauka.

Likidazioa

Sortutako BEZ

Araubide orokorra, [11](#) - [16](#) laukiak. %4, %7 edo %16ko zerga tasa (kasuan kasukoa) aplikatu zaien zergapeko eta salbuetsi gabeko eragiketen zerga oinarriak eta haien ziozko kuotak adierazi behar dira.

Talde barruko eragiketarako, [17](#) - [22](#) laukiak (eremu hau erakunde taldeen araubide berezian dauden subjektu pasiboek soilik bete behar dute). %4, %7 edo %16ko zerga tasa (kasuan kasukoa) aplikatu zaien zergapeko eta salbuetsi gabeko eragiketen zerga oinarriak eta haien ziozko kuotak adierazi behar dira.

Baliokidetasun errekarua, [23](#) - [30](#) laukiak. %0,5, %1, %4 edo %1,75 zerga tasa (kasuan kasukoa) aplikatu zaien zergapeko eta salbuetsi gabeko eragiketen zerga oinarriak eta haien ziozko kuotak adierazi behar dira.

Batasunaren barruko eskuraketak, [31](#) - [32](#) laukiak. Ekitaldian Batasunaren barruan egindako eskuraketeten zerga oinarrien batura eta haien dagozkien kuoten batura adierazi behar dira.

Subjektu pasiboaren inbertsioak sortutako BEZ, [33](#) eta [34](#) laukiak. Ekitaldian subjektu pasiboak egindako inbertsioen zerga oinarrien batura eta haien ziozko sortutako kuoten batura adierazi behar dira.

Oinarrien eta kuoten aldaketak, [35](#) eta [36](#) laukiak. Faktura zuzentzaileen (80. artikuluko hirugarren eta laugarren idatz-zatietan azaldu direnak soilik) eta aurreko laukietan ezarritakoak ez beste tasa batzuen ondoriozko fakturen zerga oinarrien batura eta haien ziozko kuoten batura adierazi behar dira.

Sortutako kuota, guztira, [37](#). laukia. [12](#), [14](#), [16](#), [18](#), [20](#), [22](#), [24](#), [26](#), [28](#), [30](#), [32](#), [34](#) eta [36](#). laukietan jarritako kuota guztien batura adierazi behar da.

BEZ kengarria

BEZ kengarria barruko eragiketarako (talde barruko eragiketarako salbu), [38](#). laukia. Barruko eragiketarako jasandako kuota kengarrien guztirako zenbatekoa adierazi behar da, talde barruko eragiketen kuotak salbu utzita, lainaren erregela, behar denean, aplikatu ondoren.

BEZ kengarria talde barruko eragiketarako, [39](#). laukia. Talde barruko eragiketarako jasandako kuota kengarrien guztirako zenbatekoa adierazi behar da, lainaren erregela, behar denean, aplikatu ondoren.

BEZ kengarria inportazioetan, [40](#). laukia. Inportazioetan jasandako BEZaren kuota kengarrien guztirako zenbatekoa adierazi behar da, lainaren erregela, behar denean, aplikatu ondoren.

BEZ kengarria Batasunaren barruko eskuraketarako, [41](#). laukia. Batasunaren barruko ondasun eskuraketarako jasandako BEZaren kuota kengarrien guztirako zenbatekoa adierazi behar da, lainaren erregela, behar denean, aplikatu ondoren.

Konpentsazioak nekazaritzaren, abeltzaintzaren eta arrantzaren araubide berezian, [42](#). laukia. Nekazaritzaren, abeltzaintzaren eta arrantzaren araubide bereziari heldutako subjektu pasiboek ordaindutako konpentsazioen zenbatekoa adierazi behar da, lainaren erregela, behar denean, aplikatu ondoren.

Inbertsioen ondasunen erregularizazioa, [43](#). laukia. Aurreko epealdietan inbertsio ondasunen zioz aplikatutako kenkariaren erregularizazioaren emaitza adierazi behar da. Jarduerari ekin aurreko kenkaririk badago, haien erregularizazioa ere zenbatu behar da. Erregularizazioaren ondorioz kenkariaren zenbatekoa txikitu behar bada, emaitza (-) zeinuarekin adierazi behar da.

Kenkaria, guztira, [44](#). laukia. [38](#), [39](#), [40](#), [41](#), [42](#) eta [43](#). laukietan jarritako kuota guztien batura adierazi behar da.

Zerga-ordainketa lurraldeen arabera:

Lurralde erkideko eragiketen bolumena, [45](#). laukia. Lurralde erkidean egindako eragiketen bolumenaren zenbatekoa adierazi behar da. Zenbatekoa Ekonomi Ituneko 28. artikuluan ezarritakoaren arabera kalkulatu behar da.

Arabako eragiketen bolumena, [47](#). laukia. Arabako Lurralde Historikoan egindako eragiketen bolumenaren zenbatekoa adierazi behar da. Zenbateko Ekonomi Ituneko 28. artikuluan ezarritakoaren arabera kalkulatu behar da.

Gipuzkoako eragiketen bolumena, [49](#). laukia. Gipuzkoako Lurralde Historikoan egindako eragiketen bolumenaren zenbatekoa adierazi behar da. Zenbateko Ekonomi Ituneko 28. artikuluan ezarritakoaren arabera kalkulatu behar da.

Bizkaiko eragiketen bolumena, [51](#). laukia. Bizkaiko Lurralde Historikoan egindako eragiketen bolumenaren zenbatekoa adierazi behar da. Zenbateko Ekonomi Ituneko 28. artikuluan ezarritakoaren arabera kalkulatu behar da.

Nafarroako eragiketen bolumena, [53](#). laukia. Nafarroako Foru Komunitatean egindako eragiketen bolumenaren zenbatekoa adierazi behar da. Zenbateko Ekonomi Ituneko 28. artikuluan ezarritakoaren arabera kalkulatu behar da.

Eragiketen bolumena, guztira, [55](#). laukia. [45](#), [47](#), [49](#), [51](#) eta [53](#). laukietan jarritako zenbatekoen batura adierazi behar da.

Eragiketen bolumena kalkulatzeko ondoren zehaztuko diren eragiketen kontraprestazioak hartuko dira kontuan:

- a) a) Egutegiko urtean eta lurralde bakoitzean subjektu pasiboak bere jardueran egin dituen ohiko eta lantzean behingo zergapeko ondasun emateak eta zerbitzugintzak (kenkari eskubidea ematen duten salbuetsiak barne). Zergaren kargapean ez dauden ondasun emateak eta zerbitzugintzak ez dira kontuan hartuko, ez eta hari buruzko arautegiaren arabera kenkaria aplikatzeko eskubidea ematen ez duten emate eta zerbitzugintza salbuetsiak ere.
- b) Ordainketa aurreratuen zenbatekoa.
- c) Zergaren zerga oinarriari sartutako ondasun emateen eta zerbitzugintzen prezioari lotutako diru-laguntzak, hari buruzko arautegian xedatutakoarekin bat etorriz.

Eragiketen bolumenean inolaz ere ez dira konputatu behar Batasunaren barruko eskuraketak. Hala ere, eskuraketa horiek direla eta Zergaren zioz sortutako kopurua Ekonomi Itunean ezarritako erregelen arabera ordaindu behar zaio kasuan kasuko administrazioari.

*Lurralde erkideko ehuneko*a, [46]. laukia. Ondoko eragiketaren emaitza jarri behar da (hiru hamartarrekin):

$$[46] \text{ laukia} = \frac{[45] \text{ laukia}}{[55] \text{ laukia}} \times 100$$

*Arabako ehuneko*a, [48]. laukia. Ondoko eragiketaren emaitza jarri behar da (hiru hamartarrekin):

$$[48] \text{ laukia} = \frac{[47] \text{ laukia}}{[55] \text{ laukia}} \times 100$$

*Gipuzkoako ehuneko*a, [50]. laukia. Ondoko eragiketaren emaitza jarri behar da (hiru hamartarrekin):

$$[50] \text{ laukia} = \frac{[49] \text{ laukia}}{[55] \text{ laukia}} \times 100$$

*Bizkaiko ehuneko*a, [52]. laukia. Ondoko eragiketaren emaitza jarri behar da (hiru hamartarrekin):

$$[52] \text{ laukia} = \frac{[51] \text{ laukia}}{[55] \text{ laukia}} \times 100$$

*Nafarroako ehuneko*a, [54]. laukia. Ondoko eragiketaren emaitza jarri behar da (hiru hamartarrekin):

$$[54] \text{ laukia} = \frac{[53] \text{ laukia}}{[55] \text{ laukia}} \times 100$$

*Ehuneko*a, *guztira*, [56]. laukia. 100 jarri behar da eta horixe izan behar da [46], [48], [50], [52] eta [54]. laukietako ehunekoen batura (hiru hamartarrekin).

Eragiketa horien emaitzako ehunekoak behin betikoak izan behar dira ekitaldirako, eta hurrengo ekitaldian behin-behinean aplikatuko dira, Ekonomi Itunean zehaztutako kasuetan izan ezik.

Diferentzia ([37] - [44]), [57]. laukia. Lauki honetan [37]. laukiko zenbatekoari [44]. laukikoa kenduta geratzen dena jarri behar da:

$$[57]. \text{ laukia} = [37]. \text{ laukia} - [44]. \text{ laukia}$$

*Bizkaia*ri *eratziki beharreko kuota*, [58]. laukia. [57]. laukiko kopurua eta [52]. laukiko ehuneko biderkatzearen emaitzako zenbatekoa jarri behar da.

Aurreko urteko ekitaldietatik konpentsatzeko geratu den kuota, [59]. laukia. Aurreko urteetatik konpentsatzeko geratu diren kuotetatik Bizkaia

ri *eratziki behar* zaizkion zenbatekoa adierazi behar da.

Diferentzia ([58] - [59]), [60]. laukia. Lauki horietako zenbatekoen arteko kenketaren emaitza jarri behar da.

Bizkaiko Foru Aldundiari egindako sarrerak, [61]. laukia. Bizkaiko Foru Ogasunak berari aurkeztutako autoliquidazioen ondorioz jasotako kuoten zenbatekoa soilik jarri behar da (aurreko hiru hiruilekoetakoak edo ekitaldiko aurreko hamaika hiletakoak, kasuan kasukoa), edo berak likidatutako kuoten zenbatekoa.

Bizkaiko Foru Aldundiari egindako itzulketak, [62]. laukia. Bizkaiko Foru Aldundiak ekitaldian egindako itzulketen zenbatekoen eta eskatu arren izapidetu gabe dauden itzulketen zenbatekoen batura jarri behar da. Erakunde taldeen arabide berezian dauden subjektu pasiboek ekitaldiko 12 hiletako zenbatekoa, 353 eredian egotzitakoa, jarri behar dute.

Emaitza

Jarduerarik ez, [64]. laukia. Ekitaldian BEZaren kuotarik sortu edo jasan ez bada, X batez markatu behar da lauki hau.

Konpentsatu beharra, [65]. laukia. [63]. laukiko zenbatekoa jarri behar da, baldin eta negatiboa bada eta itzultzeko eskatzen ez bada.

Itzuli beharra, [66]. laukia. [63]. laukiko zenbatekoa jarri behar da, baldin eta negatiboa bada eta itzultzeko eskatzen bada.

Sartu beharra, [67]. laukia. [63]. laukiko zenbatekoa jarri behar da, positiboa bada.

[68] eta [69]. laukiak autoliquidazio osagarria aurkezten denean soilik bete behar dira.

2. orrialdea

Informazio gehigarria

Izakinak, [75] - [76]. laukiak. Hasierako (urtarrilaren 1eko) izakin zenbatekoa eta amaierako (abenduariaren 31ko) izakinena adierazi behar dira, erosketa-prezioaren arabera.

Ondasun arrunten erosketak, [77] - [94]. laukiak. Hona lauki horietan adierazi behar dena:

[77], [80] eta [83]. Ekitaldian egindako ondasun arrunten erosketen zioz jasandako kuotei dagozkien zerga oinarrien zenbatekoak adierazi behar dira, zerga tasa bakoitzeko.

[78], [81] eta [84]. Ekitaldian egindako ondasun arrunten erosketei dagozkien kuotak, zerga tasa bakoitzeko, kenezinak barne, lainaren erregela, bidezkoa denean, aplikatu baino lehen.

[79], [82] eta [85]. Ekitaldian egindako ondasun erosketek jasandako kuotak, zerga tasa bakoitzeko, lainaren erregela, bidezkoa denean, aplikatu ondoren.

[86]. Nekazaritzaren, abeltzaintzaren eta arrantzaren arabide bereziari heldutako subjektu pasiboek ekitaldian ordaindutako kuotari dagozkion zerga oinarrien zenbatekoa.

[87]. Nekazaritzaren, abeltzaintzaren eta arrantzaren arabide bereziari heldutako subjektu pasiboek ekitaldian ordaindutako kuoten zenbatekoa, lainaren erregela, bidezkoa denean, aplikatu baino lehen.

[88]. Nekazaritzaren, abeltzaintzaren eta arrantzaren arabide bereziari heldutako subjektu pasiboek ekitaldian ordaindutako kuota kengarrien zenbatekoa, lainaren erregela, bidezkoa denean, aplikatu ondoren.

[89]. Ekitaldian indarrean egon diren tasak ez beste batzuk aplikatu zaizkien ondasun arrunten erosketen fakturen zuzenketen ondoriozko kuotei dagozkien zerga oinarri guztien batura.

[90]. Ekitaldian %4, %7 eta %16 ez beste zerga tasa batzuk aplikatu zaizkien ondasun arrunten erosketen fakturen zuzenketei dagozkien kuota kengarri guztien zenbatekoa, lainaren erregela, bidezkoa denean, aplikatu baino lehen.

[91]. Ekitaldian %4, %7 eta %16 ez beste zerga tasa batzuk aplikatu zaizkien ondasun arrunten erosketen fakturen zuzenketei dagozkien kuota kengarri guztien zenbatekoa, lainaren erregela, bidezkoa denean, aplikatu ondoren. Zenbatekoa negatiboa bada, (-) zeinuarekin jarri behar da.

[92], [77], [80], [83], [86] eta [89]. Laukietan adierazitako zenbatekoen batura.

[93], [78], [81], [84], [87] eta [90]. Laukietako zenbatekoen batura.

[94], [79], [82], [85], [88] eta [91]. Laukietako zenbatekoen batura.

Gastuak, [95] - [109]. laukiak. Hona lauki horietan adierazi behar dena:

[95], [98] eta [101]. Ekitaldian sortutako gastuengatik jasandako kuotei dagozkien zerga oinarrien zenbatekoa, zerga tasa bakoitzeko.

[96], [99] eta [102]. Ekitaldian egindako gastuei dagozkien kuoten zenbatekoa, kenezinak barne, zerga tasa bakoitzeko, lainaren erregela, bidezkoa denean, aplikatu baino lehen.

[97], [100] eta [103]. Ekitaldian egindako gastuek jasandako kuota kengarrien zenbatekoa, zerga tasa bakoitzeko, lainaren erregela, bidezkoa denean, aplikatu ondoren.

[104]. %4, %7 eta %16 ez beste zerga tasa batzuk aplikatu zaizkien gastu fakturen zuzenketen ondorioz jasandako kuotei dagozkien zerga oinarri guztien batura.

[105]. Ekitaldian %4, %7 eta %16 ez beste zerga tasa batzuk aplikatu zaizkien gastu fakturen zuzenketei dagozkien kuota guztien batura, lainaren erregela, bidezkoa denean, aplikatu baino lehen.

[106]. Ekitaldian %4, %7 eta %16 ez beste zerga tasa batzuk aplikatu zaizkien gastu fakturen zuzenketei dagozkien kuota guztien batura, lainaren erregela, bidezkoa denean, aplikatu ondoren. Zenbatekoa negatiboa bada, (-) zeinuarekin jarri behar da.

[107], [95], [98], [101] eta [104]. Laukietan adierazitako zenbatekoen batura.

[108], [96], [99], [102] eta [105]. Laukietan adierazitako kopuruen batura.

[109], [97], [100], [103] eta [106]. Laukietako zenbatekoen batura.

Inbertsio ondasunak, [110] – [124] laukiak. Hona lauki horietan adierazi behar dena:

[110], [113] eta [116]. Ekitaldian egindako inbertsio ondasunen eskuraketen zioz jasandako kuotei dagozkien zerga oinarrien zenbatekoa, zerga tasa bakoitzeko.

[111], [114] eta [117]. Ekitaldian egindako inbertsio ondasunen eskuraketei dagozkien kuoten zenbatekoa, zerga tasa bakoitzeko, kuota kenezinak barne, lainaren erregela, bidezkoa denean, aplikatu baino lehen.

[112], [115] eta [118]. Ekitaldiko kuoten zenbatekoa, zerga tasa bakoitzeko; baita, lainaren erregela aplikatu ostean eta halakorik aplikatu bada, kendu ezin diren inbertsio ondasunen eskuraketei dagozkien ere.

[119]. %4, %7 eta %16 ez beste zerga tasa batzuk aplikatu zaizkien inbertsio ondasunen eskuraketen fakturen zuzenketen zioz jasandako kuotei dagozkien zerga oinarri guztien batura.

[120]. Ekitaldian %4, %7 eta %16 ez beste zerga tasa batzuk aplikatu zaizkien inbertsio ondasunen eskuraketen fakturen zuzenketen zioz jasandako kuota guztien batura, lainaren erregela, bidezkoa denean, aplikatu baino lehen.

[121]. Ekitaldian %4, %7 eta %16 ez beste zerga tasa batzuk aplikatu zaizkien inbertsio ondasunen eskuraketen fakturen zuzenketen zioz jasandako kuota guztien batura, lainaren erregela, bidezkoa denean, aplikatu ondoren. Zenbatekoa negatiboa bada, (-) zeinuarekin jarri behar da.

[122], [110], [113], [116] eta [119]. Laukietan adierazitako zenbatekoen batura.

[123], [111], [114], [117] eta [120]. Laukietako zenbatekoen batura.

[124], [112], [115], [118] eta [121]. Laukietan adierazitako kopuruen batura.

Zerga oinarria, guztira, [125]. laukia. [92], [107], eta [122]. Laukietako zenbatekoen batura jarri behar da:

[125]. laukia = [92]. laukia + [107]. laukia + [122]. laukia

Jasandako kuota, guztira, [126]. laukia. Ondasun arrunten erosketengatik, gastuengatik eta inbertsio ondasunen eskuraketengatik jasandako kuota guztien batura adierazi behar da:

[126]. laukia = [93]. laukia + [108]. laukia + [123]. laukia

Kuota kengarria, guztira, [127]. laukia. Ondasun arrunten erosketengatik, gastuengatik eta inbertsio ondasunen eskuraketengatik kengarri diren kuota guztien batura adierazi behar da:

[127]. laukia = [94]. laukia + [109]. laukia + [124]. laukia

Laina

[128] – [129] laukiak. Lain orokorra ([128]) edota lain berezia ([129]) aplikatu bad(ir)a, lauki hauetan X jarrita adierazi behar da.

Lainaren ehunekoa, [130]. laukia. Ekitaldiko autolikidazioan aplikatutako lainaren ehunekoa adierazi behar da.

Eragiketa zehatzak

Batasunaren barruko emateak, [113]. laukia. Ekitaldian Batasunaren barruan egindako emate salbuetsi guztien zenbatekoa adierazi behar da.

Bidaarien araubideko esportazioak, [132]. laukia. Bidaarien araubideko esportazioen ondorioz ekitaldian egindako itzulketen zerga oinarrien guztirako zenbatekoa jarri behar da.

Behin betiko esportazioak eta bidalketak Kanarietara, Zeutara eta Melillara, [133] - [134] laukiak. Eragiketa hauen kontraprestazioen guztirako zenbatekoa adierazi behar da, edo, bestela, haien balioena.

Eremu salbuetsiekin egindako eragiketak (emateak), [135]. laukia. BEZari buruzko Foru Arauko 23. artikuluan (alde frankoen, biltegi frankoen eta beste biltegi batzuen salbuespenak) eta 24. artikuluan (aduna eta zerga araubideen salbuespenak) xedatutakoaren arabera salbuetsita dauden emateen guztirako zenbatekoa adierazi behar da.

Zergapean ez dauden edo salbuetsi dauden eragiketak, kenkaria aplikatzeko eskubidea ematen dutenak, [136]. laukia. BEZari buruzko Foru Arauko 94. artikulua arabera zergapean ez dauden edo salbuetsita dauden kenkari eskubidedun beste eragiketa batzuen guztirako zenbatekoa jarri behar da, hain zuzen ere eragiketa zehatzen ataleko beste kontzeptu batzuetan adierazitakoez beste batzuen.

Zergapean ez dauden edo salbuetsita dauden eragiketak, kenkaria aplikatzeko eskubiderik ematen ez dutenak, [137]. laukia. BEZari buruzko Foru Arauko 7. artikuluan (Zergaren kargapean ez dauden eragiketak) eta 20. artikuluan (salbuespenak barne eragiketetan) aipatutako eragiketen (zergapean ez daudenak eta salbuetsiak, kenkaria aplikatzeko eskubide ematen ez dutenak) guztirako zenbatekoa jarri behar da.

Subjektu pasiboaren inbertsioaren ziozko eragiketak, likidazioan ageri ez direnak, [138]. laukia. Subjektu pasiboaren inbertsioa izan duten ondasun emateen eta zerbitzugintzen zenbatekoa jarri behar da, hain zuzen ere inprimaki honetako 33. laukian (Subjektu pasiboaren inbertsioaren zioz sortutako BEZ) adierazi behar ez diren halako eragiketen zenbatekoa.

Guztira, [139]. laukia. Jarraian adieraziko den zenbatekoa jarri behar da:

[139]. laukia = [131]. laukia + [132]. laukia + [133]. laukia + [134]. laukia + [135]. laukia + [136]. laukia + [137]. laukia + [138]. laukia

Nekazaritzaren, abeltzaintzaren eta arrantzaren araubide berezian egindako eragiketak, [140]. laukia. Baldin eta subjektu pasiboak nekazaritzaren, abeltzaintzaren eta arrantzaren araubide bereziko jardueraren bat egiten badu, lauki honetan ekitaldian araubide horri helduta egindako ondasun emate eta zerbitzugintza guztien zenbatekoa jarri behar du, jasotako kontentsazioak barne.

Baliokidetasun errekaruaren araubide berezian egindako eragiketak, [141]. laukia. Baldin eta aitortzaileak baliokidetasun errekaruaren araubide berezia aplikatu ahal zaion txikizkako merkataritzako jardueraren bat egiten badu, lauki honetan ekitaldian araubide horri helduta egindako ondasun emate guztien zenbatekoa jarri behar du, BEZ barne.

Ustiapenerako diru-laguntzak, [142]. laukia. Ekitaldian jasotako kapitalekoak ez beste diru-laguntzen zenbatekoa jarri behar da, hain zuzen ere enpresa eta lanbide jarduerak finantzatzeko jasotako diru-laguntzena.

Ekitaldian jasotako kapital diru-laguntzak, [143]. laukia. Ekitaldian enpresa eta lanbide jarduerak finantzatzeko jasotako diru-laguntzen zenbatekoa jarri behar da, kapital diru-laguntzena soilik.

Fakturen liburuak

Emandako fakturak. Lehen zk. zutabeen emandako fakturen serieko lehen zenbakia jarri behar da eta Azken zk. zutabeen serieko azken fakturarena. Fakturen zenbakiak ekitaldian emandako fakturen BEZaren erregistro liburuan idaztohartuta daudenak izan behar dira.

Jasotako fakturak. Lehen zk. zutabeen emandako lehen fakturari jasotzaileak ezarritako zenbakia jarri behar da eta Azken zk. zutabeen serieko azken fakturari ezarritakoa. Fakturen zenbakiak ekitaldian jasotako fakturen BEZaren erregistro liburuan idaztohartuta daudenak izan behar dira.

Data eta sinadura

Autolikidazio honetan data zehaztu behar da eta subjektu pasibo aitortzaileak edo beraren ordezkariak sinatu behar du.

Banku-helbideratzea

Autolikidazioaren emaitza "itzuli beharra" bada, itzulketaren zenbatekoa sartu behar den banku kontuaren datuak adierazi behar dira: banketxea, sukurtsala eta kontuaren zenbakia (zehatz-mehatz).

3. orrialdea

Lainak

Orrialde hau aldi berean kenkarirako eskubidea duten eragiketak eta ez dutenak egiteagatik edo diru-laguntzak jasotzeagatik lainaren erregela aplikatzen duten subjektu pasiboek soilik bete behar dute.

Egindako jarduera. Subjektu pasiboaren jarduera deskribatu behar da, edo jardueraren arloa.

EJSN, [01]. laukia. Subjektu pasiboak egindako jarduera bakoitzak Jarduera Ekonomikoen Sailkapen Nazionalan duen kodea jarri behar da; hona zerrenda:

- 011 Nekazaritzako ekoizpena
- 012 Abeltzaintzako ekoizpena
- 013 Nekazaritzako ekoizpena abeltzaintzako ekoizpenarekin konbinatuta
- 014 Nekazaritzarekin eta abeltzaintzarekin lotutako zerbitzuak, albatzaritza izan ezik
- 015 Ehiza, animaliak harrapatzea eta ihizi-birpopulatzea, eta horiekin lotutako zerbitzuak
- 020 Basogintza eta basoen ustiapena, eta horiei lotutako zerbitzuak
- 050 Arrantza eta akuikultura, eta horiekin lotutako zerbitzuak
- 101 Antrazita eta harrikatza ateratzea eta aglomeratzea
- 102 Lignito nabarra ateratzea eta aglomeratzea
- 103 Zohikatza ateratzea eta aglomeratzea
- 111 Petrolio gordina eta gas naturala ateratzea
- 112 Petrolioaren eta gasaren ustiapenekin lotutako zerbitzuak, prospekzioak izan ezik
- 120 Uranio eta torio mineralak ateratzea
- 131 Burdina mineralak ateratzea
- 132 Burdina ez beste mineral metaliko batzuk ateratzea, uranio eta torio meak izan ezik
- 141 Harria ateratzea
- 142 Harea eta buztina ateratzea
- 143 Ongarriak eta kimika-ekoizkinak egiteko mineralak ateratzea
- 144 Gatzaren ekoizpena
- 145 Ez metalikoak ez energetikoak ez diren mineralak ateratzea
- 151 Haragiaren industria
- 152 Arraina eta arrainez egindako produktuak prestatzea eta kontserbatzea
- 153 Frutak eta barazkiak prestatzea eta kontserbatzea
- 154 Koipeak eta olioak (landareenak eta animalienak) egitea
- 155 Esnearen industriak
- 156 Errotaritzako produktuak, almidoiak eta amilazeoak fabrikatzea
- 157 Animalientzako jangaien ekoizpena
- 158 Beste jangai batzuk fabrikatzea
- 159 Edarigintza
- 160 Tabakoaren industria
- 171 Ehun-zuntzak prestatzea eta irutea
- 172 Ehungintza
- 173 Ehunen akabera
- 174 Ehunez egindako beste gai batzuk fabrikatzea, jantziak izan ezik
- 175 Ehunaren beste industria batzuk
- 176 Puntuzko ehunak fabrikatzea
- 177 Puntuzko ehunez egindako gaiak fabrikatzea
- 181 Larruzko jantziak egitea
- 182 Ehunezko jantziak eta osagarriak egitea
- 183 Larruak prestatu eta tindatzea; larruzko gaiak egitea
- 191 Larrua prestatzea, ontzea eta akabatzea
- 192 Larruzko denetariko gaiak eta bidaiarako gaiak fabrikatzea
- 193 Oinetakogintza
- 201 Zura zerratu eta marruskatzea; zura industrian prestatzea
- 202 Txapak, taula kontratxapatuak, listoidunak, partikula aglomeratuzkoak eta zuntzekoak egitea, bai eta beste taula eta panel batzuk ere
- 203 Zurezko egiturak eta zurgintza eta ebanisteriako piezak fabrikatzea eraikuntzarako
- 204 Zurezko ontziak eta enbalajeak fabrikatzea
- 205 Zurezko beste produktu batzuk fabrikatzea. Kortxozko produktuak, saskigintzakoak eta espartzuzkoak fabrikatzea
- 211 Paper-orea, papera eta kartoia egitea
- 212 Paperezko eta kartoizko gaiak fabrikatzea
- 221 Argitalpena
- 222 Arte grafikoak eta haiekin lotutako zerbitzuak
- 223 Euskarri grabatuen aldakiak egitea
- 231 Koke-lantegiak
- 232 Petrolioa fintzea
- 233 Erregai nuklearren eta hondakin erradiaktiboen tratamendua
- 241 Erregai nuklearren eta hondakin erradiaktiboen fabrikazioa
- 242 Pestizidak eta nekazaritzako bestelako kimika-ekoizkinak egitea
- 243 Pinturak, bernizak eta antzeko estaldurak egitea; moldiztegiko tintak eta zizinak
- 244 Farmazia-gaiak egitea
- 245 Xaboiak, garbikariak eta garbiketarako nahiz distiratarako bestelako gaiak egitea. Usaingarriak eta edergintzarako nahiz higienerako gaiak
- 246 Bestelako kimika-ekoizkinak egitea
- 247 Zuntz artifizialak eta sintetikoak egitea
- 251 Kautxuzko gaiak egitea
- 252 Materia plastikozko gaiak fabrikatzea
- 261 Beira eta beirazko produktuak fabrikatzea
- 262 Zeramikazko gai ez-erregogorrek, eraikuntzarakoak izan ezik, egitea; zeramikazko gai erregogorrek egitea
- 263 Zeramikazko azulejuak eta baldosak fabrikatzea
- 264 Eraikuntzarako adreiluak, teilak eta lur egosizko produktuak fabrikatzea
- 265 Zementua, karea eta igeltsua fabrikatzea
- 266 Hormigoizko, igeltsuzko eta zementuzko osagaiak fabrikatzea
- 267 Harriaren industria
- 268 Metalikoak ez diren denetariko produktu mineralak fabrikatzea
- 271 Burdinazko, altzairuzko eta ferroaleaziozko oinarrizko ekoizkinak fabrikatzea (IAEE)
- 272 Hodigintza
- 273 IAEEkoak ez diren burdina eta altzairua eraldatzeko eta ferroaleaziozko ekoizkinak egiteko bestelako jarduerak
- 274 Metal bitxien eta burdinazkoak ez diren bestelako metalen ekoizpena eta lehen eraldaketa
- 275 Metalen galdaketa
- 281 Eraikuntzarako metalezko osagaiak fabrikatzea
- 282 Metalezko patinak, biltoki handiak eta edukiontzia egitea; berokuntza nagusirako berogailuak eta galdarak fabrikatzea
- 283 Lurrun-sorgailuak fabrikatzea
- 284 Metalen lanketa, estanpazioa eta enbutizioa; hautsen metalgintza
- 285 Metalak tratatu eta estaltzea. Mekanika orokorreko ingeniaritza besteren kontura
- 286 Aiztoak, mahai-tresnak, erremintak eta burdingintzako gaiak fabrikatzea
- 287 Metalezko denetariko ekoizkinak fabrikatzea, altzariak izan ezik
- 291 Mekanikazko makinak, tresneria eta gaiak fabrikatzea
- 292 Erabilera orokorreko bestelako makineria, tresneria eta mekanika-gaiak fabrikatzea
- 293 Nekazaritzarako makinak fabrikatzea
- 294 Makina-tresnak fabrikatzea
- 295 Erabilera zehatzetarako denetariko makinak fabrikatzea
- 296 Armak eta munizioak fabrikatzea

- 297 Etxetresnak fabrikatzea
- 300 Bulegorako makinak eta informatikako tresnak fabrikatzea
- 311 Motor elektrikoak, transformadoreak eta sorgailuak fabrikatzea
- 312 Banaketa eta kontrolerako aparatu elektrikoak fabrikatzea
- 313 Hari eta kable elektriko isolatuak fabrikatzea
- 314 Metagailu eta pila elektrikoak fabrikatzea
- 315 Lanpara elektrikoak eta argiztaketa-aparatuak fabrikatzea
- 316 Bestelako tresneria elektrikoa fabrikatzea
- 321 Balbulak, hodiak eta bestelako osagai elektronikoak fabrikatzea
- 322 Irrati eta telebista transmisoreak eta hari bidezko irratitelefonikoak eta irradi-telegrafiako aparatuak fabrikatzea
- 323 Soinua eta irudia hartzeko, grabatzeko eta erreproduzitzeko aparatuak fabrikatzea
- 331 Medikuntza eta kirurgiako ekipoak eta tresnak eta aparatu ortopedikoak fabrikatzea
- 332 Neurtzeko, egiaztatzeko, kontrolatzeko, nabigatzeko eta beste xede batzuetarako tresnak eta aparatuak fabrikatzea, industria prozesuak kontrolatzekoak izan ezik
- 333 Industria prozesuak kontrolatzeko ekipoak fabrikatzea
- 334 Optikako tresnak eta argazkigintzako ekipoak fabrikatzea
- 335 Erlojugintza
- 341 Ibilgailu motordunak fabrikatzea
- 342 Ibilgailu motordunen, atoen eta erdiatosen karrozeriak fabrikatzea
- 343 Ibilgailu motordunetarako eta haien motorretarako zati, pieza eta osagarri ez-elektrikoak fabrikatzea
- 351 Itsasontziak egitea eta konpontzea
- 352 Trenbide-materiala fabrikatzea
- 353 Aireontziak eta espazio-ontziak fabrikatzea
- 354 Motozikletak eta bizikletak fabrikatzea
- 355 Garraioko bestelako gaiak fabrikatzea
- 361 Altzarigintza
- 362 Bitxigintza, urregintza, zilargintza eta antzekoak
- 363 Musika-tresnak egitea
- 364 Kirol gaiak fabrikatzea
- 365 Jokoak eta jostailuak fabrikatzea
- 366 Bestelako hainbat manufaktura-industria
- 371 Txatarra eta metalen hondakinak birziklatzea
- 372 Metalezkoak ez diren hondakinak birziklatzea
- 401 Energia elektrikoa ekoiztu eta banatzea
- 402 Gasa ekoiztea; gasdun erregaia hiri-hodien bidez banatzea, gasbideen bitartez izan ezik
- 403 Lurruna eta ur beroa sortzea eta banatzea
- 410 Ura biltzea, araztea eta banatzea
- 451 Obrak prestatzea
- 452 Higiezinetak eraikuntza, oro har, eta ingeniari zibileko obrak
- 453 Obra eta eraikinetako instalazioak
- 454 Obra eta eraikinen akabera
- 455 Eraikuntzako edo eraispenerako ekipoak alogeratzea behargin eta guzti
- 501 Ibilgailu motordunen salmenta
- 502 Ibilgailu motordunak mantendu eta konpontzea
- 503 Motordun ibilgailuetako ordezkotako piezen eta osagarrien salmenta
- 504 Motozikleta eta ziklomotorren salmenta, mantentzea eta konponketa, eta haien ordezkotako piezak eta osagarriak saltzea
- 505 Automoziarako erregaien txikizkako salmentan
- 511 Merkataritzako bitartekaritza
- 512 Nekazaritzako lehengaien eta animalia bizien handizkako merkataritza
- 513 Janarien, edarien eta tabakoaren handizkako merkataritza
- 514 Janariak ez beste kontsumo-gai batzuen handizkako merkataritza
- 515 Nekazaritzakoak ez diren produktu erdilanduen, txatarraren eta hondakinen handizkako merkataritza
- 516 Makinen eta ekipoen handizkako merkataritza
- 517 Handizkako merkataritza: besteak
- 521 Txikizkako merkataritza espezializatu gabeko establezimenduetan
- 522 Janarien, edarien eta tabakoaren txikizkako merkataritza establezimendu espezializatuetan
- 523 Produktu farmazeutikoen eta medikuntzako, edergintzako eta higieneko gaien txikizkako merkataritza
- 524 Gai berrien txikizkako bestelako merkataritza establezimendu espezializatuetan
- 525 Bigarren eskuko ondasunen txikizkako merkataritza establezimenduetan
- 526 Txikizkako merkataritza establezimenduetatik kanpo
- 527 Gauza pertsonalak eta etxeko tresnak konpontzea
- 551 Hotelak
- 552 Kanpina eta iraupen laburreko beste ostatu mota batzuk
- 553 Jatetxeak
- 554 Edari-establezimenduak
- 555 Janleku kolektiboak eta prestatutako janarien hornidura
- 601 Tren-garraioa
- 602 Lurgaineko beste garraio batzuk
- 603 Hodi bidezko garraioa
- 611 Itsas garraioa
- 612 Garraioa barne nabigazioaren bidez
- 621 Hegazkin-garraio erregularra
- 622 Eskatu ahalako hegazkin-garraioa
- 623 Garraio espaziala
- 631 Merkaturgaiak eskuztatzea eta biltegitratzea
- 632 Garraioei lotutako beste jarduerak batzuk
- 633 Bidai agentziak, turismoko handizkariak eta txikizkariak, eta turismoa sustatzeko beste jarduerak batzuk
- 634 Merkaturgaien garraioa antolatzea
- 641 Posta jarduerak
- 642 Telekomunikazioak
- 651 Moneta bitartekaritza
- 652 Beste finantza bitartekaritza batzuk
- 660 Aseguruak eta pentsio planak, nahitaezko gizarte segurantzak izan ezik
- 671 Finantza bitartekaritzaren jarduerak osagarriak, aseguruak eta pentsio-planak izan ezik
- 672 Aseguruak eta pentsio-planen jarduerak osagarriak
- 701 Higiezin jarduerak norberaren kontura
- 702 Ondasun higiezinaren alogera norberaren kontura
- 703 Higiezin jarduerak beste batzuen kontura
- 711 Automobilak alogeratzea
- 712 Beste garraio bidezko jarduerak alogeratzea
- 713 Makinak eta ekipoak alogeratzea
- 714 Gauza pertsonalak eta etxeko tresnak alogeratzea
- 721 Ekipo informatikoen kontsulta
- 722 Aplikazio informatikoen kontsulta eta programa informatikoak hornitzea
- 723 Datuak prozesatzea
- 724 Datu-baseekin lotutako jarduerak
- 725 Bulegoko eta kontabilitateko makinak eta ekipo informatikoak mantentzea eta konpontzea
- 726 Informatikarekin lotutako beste jarduerak batzuk
- 731 Natur zientzien eta zientzia teknikoaren arloetako ikerketa eta garapena
- 732 Gizarte zientzien eta giza zientzien arloetako ikerketa eta garapena
- 741 Jarduera juridikoak, kontabilitatekoak, liburu-eramailtza, auditoretza, zerga-aholkularitza, merkatu-azterlanak eta iritzi publikoa aztertze inkestak; enpresen zuzendaritza eta kudeaketari buruzko kontsulta eta aholkularitza, karta-sozietateen kudeaketa
- 742 Arkitektura eta ingeniari zientziako zerbitzu teknikoak eta aholkularitza teknikoarekin loturiko beste zenbait jarduerak
- 743 Saiakuntza eta analisi teknikoak
- 744 Publizitatea
- 745 Langileak hautatu eta laneratzeko zerbitzua
- 746 Ikerketa eta segurtasun zerbitzua

- 747 Garbiketa jarduera industrialak
- 748 Denetariko enpresa jarduerak
- 751 Herri Administrazioa
- 752 Erkidego osoari zerbitzu publikoak ematea
- 753 Nahitaezko gizarte segurantz
- 801 Lehen irakaskuntza
- 802 Bigarren irakaskuntza
- 803 Goi irakaskuntza
- 804 Etengabeko prestakuntza eta irakaskuntzako beste jarduera batzuk
- 851 Osasun jarduerak
- 852 Albaitaritzako jarduerak
- 853 Gizarte zerbitzuetako jarduerak
- 900 Herri saneamenduko jarduerak
- 911 Enpresa, profesional eta ugazaba erakundeen jarduerak
- 912 Sindikatuen jarduerak
- 913 Denetariko elkarteak jarduerak
- 921 Zinegintza eta bideogintza
- 922 Irratia eta telebista
- 923 Arte eta ikuskizunetako beste jarduera batzuk
- 924 Albiste-agentziak
- 925 Liburutegiak, agiritegiak, museoak eta beste kultur ondare batzuk
- 926 Kirol jarduerak
- 927 Denetariko josteta-jarduerak
- 930 Zerbitzu pertsonaletako denetariko jarduerak
- 950 Etxeko lanak egiteko langileak enplegatzen dituzten etxeak
- 990 Lurralde kanpoko erakundeak

Eragiketen zenbatekoa, guztira, [02]. laukia. Subjektu pasiboak jarduera bakoitzean egindako ondasun emateen eta zerbitzugintzen guztirako zenbatekoa, kentzeko eskubidea sortzen ez dutenena barne.

Eragiketen guztirako zenbatekoa kalkulatzeko ez dira kontuan hartu behar Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko 7/1994

Foru Arauko 104. artikuluko hirugarren idatz-zatian aipatutakoak; hona zerrenda:

1. Zerga aplikatzen den lurraldetik kanpo dauden establezimendu iraunkorretan egindako eragiketak, haiei dagozkien kostuak lurralde horren barruan dauden establezimendu iraunkorrek jasaten ez badituzte.
2. Aurreko idatz-zatian aipatutako eragiketak zuzenean kargatu dituzten Balio Erantsiaren gaineko Zergaren kuotak.
3. Subjektu pasiboak bere enpresa edo lanbide jardueran erabili dituen inbertsio ondasunen emateen eta esportazioen zenbatekoa.
4. Subjektu pasiboaren ohiko enpresa edo lanbide jardueran sartzen ez diren higiezin eta finantza eragiketen zenbatekoa. Nolanahi ere, errentamendua subjektu pasiboaren ohiko enpresa edo lanbide jardueratzat hartuko da. Honen ondoretarako, finantza eragiketatzat hartuko dira Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko 7/1994 Foru Arauko 20. artikuluko lehenengo idatz-zatiko 18. zenbakian azaldu direnak, are salbuespenik ez dutenak ere.
5. Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko 7/1994 Foru Arauko 7. artikuluan xedatutakoaren arabera Zergaren kargapean ez dauden eragiketak.
6. Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko 7/1994 Foru Arauko 9. artikuluko 1. zenbakiko d) letran aipatutako eragiketak.

Kenkari eskubidea duten eragiketen guztirako zenbatekoa, [03]. laukia. Subjektu pasiboak jarduera bakoitzean egindako ondasun emate eta zerbitzugintzetatik kenkaria aplikatzeko eskubidea dutenen guztirako zenbatekoa jarri behar da.

Kenkari eskubidedun eragiketen guztirako zenbatekoa kalkulatzeko ez dira kontuan hartu behar Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko 7/1994 Foru Arauko 104. artikuluko hirugarren idatz-zatian aipatutakoak (aurreko puntuan aipatu dira).

Mota, [04]. laukia. Lain orokorra aplikatzen bada, G jarri behar da; lain berezia aplikatzen bada, E.

Lainaren ehuneko, [05]. laukia. Lainaren behin betiko ehuneko jarri behar da, ekitaldian dena delako jardueran egindako eragiketen arabera.